

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Bezeroen atalean esan dugun bezala, gure bezeroak udaletxeak izango ziren, baina ondoren, erabiltzaileak kirolariak izango ziren, beraiek erabiltzen dituzte eta pista multikirol horiek.

Baita ere esan behar dugu gure enpresak kluster moduan jardungo duela. Bestalde, argien kontuarekin, led argiak enpresa txinatar bati erosiko genioke, izan ere, kostuak murrizteko aukera ikusten dugu, herrialde hortan merkeago ekoizten baita hemen baino. Garrantzia handia izango zuenez enpresa horrek gure produktuan, enpresaren partaide izateko aukera emango genioke, beraiek ere enpresaren zati bat eduki ahal izateko.

Baita ere, behin eskaera bat dugunean, pista multikirol horretan egiteko instalazioa beste enpresa batekin harremanetan jarriko ginateke, horrela instalazioaren arloa errazagoa eta azkarragoa izango litzateke.

